

GAIZKI ERRANKA

Zalantzak



SANTI LEONÉ

Ez dakit saioa bera telezaborra zen; gaia telezaborra zen. Aspaldiko saio batez ari naiz, artean gazte nintzeneko batez. Tertuliako kide batek argudiatu zuen ezin zela telebista mota hori definitu, ez zela horrelakorik, berak bederen ez zekielako telezaborra zehazki zer zen. Horrelako arrazoiak eman zituen telezabor ekoizle ezaguna zen; beraz, haren zalantza teoriko guziak desagertu egiten ziren zer zen ere erraten ez zekien hori egiteko tenorean. Edo beharbada bazekien, baina etiketak molestatu egiten zuen.

Espainiako hedabideetan antzeko nahasmen epistemologikoan daude murgilduta izena latinez duen alderdi bati dagokionez. Faxista ote da? Ez, bada; faxismoa bertze gauza bat dela azalduko digute telebistan. Eskuin muturrekoa? Ines Arrimadasek berriki argitu digu beti arrazoiak duen egunkari –kontserbadore?, antidemokratiko? – konstituzionalista batean alderdi ultrakontserbadorea dela. PPrekin eta Ciudadanosekin nahasita, pasta gozo bat sortzen da, edozein demokratik aise irensteko modukoa, zentro-eskuina izeneko.

Bertze alderdi batzuekin, berriz, hedabideek ez dute den dudarik ñimiñoena ere sekulan izan. CUPEkoak erradikalak izan dira beti, Podemosekoak bolibariarioak eta ezker abertzalekoak, gaztelaniaren aberastasuna zer den, ETAzaleak, terroristak edota hiltzaileak.

Egun hauetan, Javier Esparza UPNko hautagaia telebista guzietan ibili da kontatzen Ehbilduren jarlekuak "odolez blai" daudela. Urte batzuk dira ezker abertzalea ETatik urruntzen eta eragindako sufrimendua aitortzen hasia dela. Urte batzuk dira, orobat, PSOEko buruzagi bat han-hemenka dabilela "iradokitzen" bera izan zela GAL antolatu zuela. Frogak frogatzen, sozialisten jarlekuetan odoliki ote den zalantzagarrria da oraindik kazetari anitzendako. Izena latinez duen alderdi hori zer ote den bezain. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



ADUR

"FESTAK EZ DU MAKROTIK EZER, MIKROAN ALDIZ DENETARIK"

ANE GEBARA, GASTEIZKO ALDE ZAHARREKO JAIEZ:

"Auzoko jai ezberdinak dira. Ohituak gaude auzoko jaien erdigunea txosnak eta kontzertu handiak izatera. Zaharraz Harro!k ez du horrelakorik, baina baditu gauza asko auzoko hamaika tokitan. Saiatzen gara Alde Zahar osoan egiten jaiak. Ez du makrotik ezer, mikroan aldiz denetarik. Astelehenetik igandera auzoko txoko asko pizten ditu".

ARGIA.EUS (2019/06/24)

